



Doinua:

**Bertsoak jarri dizkat**  
**Hiru puntuko koplak**

## ESAMOLDEAK

-Bakoitzak bere astoari egiten dio arre  
-Eskuzabal jokatu nuen  
-Ezta hurrik eman ere!  
-Geure esku dago

-Ez atzera ez aurrera gabiltza  
-Goian zerua eta behean lurra gelditu gara  
-Hara bestea!  
-Praketan kabitu ezinik nago

Txangora eraman arren  
motxila handia  
jatekoa ahaztu zuen  
hura bai egia.  
Pena hartuta eman nion  
otarteko erdia.

Klaseetan ez gara  
ibili erne gu  
lana entregatzeko  
ai, zenbat ernegu  
baina gura badugu  
egin dezakegu.

Atzo esan zidaten  
"ona zara, mutil!"  
eta ibili ordeztu  
apal eta umil  
paparra aterata  
harro-harro nabil.

Esamoldea

---

---

Esamoldea

---

---

Esamoldea

---

---



Doinua:

**Madalen Busturiko**  
**Hiru puntuko koplak**

## ESAMOLDEAK

-Esne mamitan bizi naiz  
-Asto izan eta mando bizi  
-Hitzetik hortzera erantzun diot  
-Izerdi patsetan nago

-Txakurraren biolina!  
-Hor konpon!  
-Galtzak bete lan daukat  
-Zer ikusi, hura ikasi

Goizean atera naiz  
etxetik hain apain  
gero eguzkipean  
egon naizenez zain  
kamiseta zeharo  
bustita dut orain.

Klaseko agenda dut  
zeharo beteta  
biharko bi lan egin  
behar ditut eta  
gainera etzi daukat  
hiru azterketa.

Bronkak ez ditut sarri  
baina bai laztanak.  
Ondo bizitzeko ez  
daukat inoiz lanak  
nahi dudana egiten  
uzten baitit amak.

Esamoldea

---

---

Esamoldea

---

---

Esamoldea

---

---